

# ADMINISTRARI LAGUNTZAILEEN KIDEGOA

**1.ETA 2. PROBAK**

**A EREDUA**

**BEC, 2010-09-24**

## **1 KONSTITUZIO AUZITEGIKO MAGISTRATUEN AGINTALDIA**

- 1a) Bederatzi urtekoa da.
- 1b) Hamabost urtekoa da.
- 1c) Bost urtekoa da.
- 1d) Sei urtekoa da.

## **2 BABES-ERREKURTSOA**

- 2a) Edozein botere publikoren jardunaren aurrean herritarren eskubide eta askatasun guztiak defendatzeko jartzen da.
- 2b) Berehala jartzen da edozein botere publikoren jardunaren eraginez herritarren eskubide eta askatasunak urratzean.
- 2c) Subsidiarioa da; beraz, Konstituzio Auzitegirako sarbidea ez da berehalakoa.
- 2d) Fiskaltzak edo ustezko urratzea jasan duenak baino ezin dezakete jarri.

## **3 HERRI-DEFENDATZAILEA**

- 3a) Gorte nagusien komisionatua da.
- 3b) Estatuko gobernuaren komisionatua da.
- 3c) Gobernuko presidentearen komisionatua da.
- 3d) Erregearen komisionatua da.

## **4 KONSTITUZIOKONTRAKOTASUN-ERREKURTSOA**

- 4a) Lege-indarreko arau bat zeharka aurkaratzea da.
- 4b) Legearen azpiko maila duen arau bat zuzenean aurkaratzea da.
- 4c) Eskubideak defendatzeko egiten den aurkaratzea da.
- 4d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

## **5 EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUA**

- 5a) Autonomia-legea da.
- 5b) Estatu-lege arrunta da.
- 5c) Lege organikoa da.
- 5d) Estatutua da, beraz, ez da legea.

## **6 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN BARNEKO ESKUMEN- ETA ANTOLAKETA-ESKEMA OSATZEKO**

- 6a) Autonomia Erakunde Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanei buruzko Dekretua eman zen.
- 6b) Euskal Herriaren Autonomia Estatutua eman zen.
- 6c) Autonomia Erakunde Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanei buruzko Legea eman zen.
- 6d) Toki Araubidearen Oinarrien Legea eman zen.

**7 EUSKO LEGEBILTZARKIDEAK AUKERATZEKO HAUTES-BARRUTIA**

- 7a) Lurralde historiko bakoitza izango da.
- 7b) Udalerrri bakoitza izango da
- 7c) Euskal Autonomia Erkidego osoa izango da.
- 7d) Barruti judiziala izango da.

**8 EUSKO LEGEBILTZARREKO LEGEAK**

- 8a) Lehendakariak aldarrikatuko ditu.
- 8b) Eusko Legebiltzarreko lehendakariak aldarrikatuko ditu.
- 8c) Erregeak aldarrikatuko ditu.
- 8d) Estatuko Gobernuaren presidenteak aldarrikatuko ditu.

**9 IKASTETXEETAKO IRAKASLEAK EUSKALDUNTZEKO PLANAK SUSTATZEA**

- 9a) Laguntza eta ikuskapeneko zerbitzuen eskumena da.
- 9b) Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen eskumena da.
- 9c) Ikastetxe bakoitzaren eskumena da.
- 9d) Zerbitzuen Administrazio Ikuskaritzaren eskumena da.

**10 ADIERAZI BAIETZAPEN HAUEN ARTEAN ZEIN EZ DEN ZUZENA:**

- 10a) Gurasoen batzarra ikastetxeen beharrezko organoa da.
- 10b) Hizkuntza-eskakizunak berariaz araututa daude Euskal Eskola Publikoaren Legean.
- 10c) Ikastetxeen hizkuntza-proiektua ikastetxeek eurek onartzen dute.
- 10d) A ereduan ikasgaiak batik bat gaztelaniaz ematen dira.

**11 EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA**

- 11a) 2005ean sortu zen dekretu bidez.
- 11b) 1988an sortu zen dekretu bidez.
- 11c) 2005ean sortu zen Eusko Legebiltzarren lege bidez.
- 11d) 1988an sortu zen Eusko Legebiltzarren lege bidez.

**12 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LEGEARI DAGOKIONEZ, HURRENGO BAIETZAPENETATIK, ZEIN EZ DA ZUZENA?**

- 12a) Lege honek ekintza positiboko neurriak babesten ditu.
- 12b) Lege honek politika publikoen neutraltasuna babesten du.
- 12c) Lege honek hainbat koordinazio-egitura sortzea bultzatzen du.
- 12d) Lege honek berdintasuna zentzu zabalean sustatzen du.

**13 EUROPAR BATASUNEAN, BERDINTASUNAREN ARLOAN, ZEIN IZAN DA FUNTSEZKO ITUNA?**

- 13a) Lisboako Tratatua.
- 13b) Nizako Tratatua.
- 13c) Maastricht-eko Tratatua.
- 13d) Amsterdamgo Tratatua.

- 14 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BEREINTASUNERAKO LEGEAN, SEXUAZ GAIN, EMAKUMEENTZAT BEREIZKERIA-EGOERAK EKAR DITZAKETEN BESTE INGURUABAR BATZUK ERE JASO DIRA. HAUETAKO ZEIN EZ DA BERARIAZ AIPATZEN LEGEAN?**
- 14a) Lanbidea.  
14b) Adina.  
14c) Ondarea.  
14d) Sexu-joera.
- 15 ZER BERRITASUN DAKAR HERRITARREK ZERBITZU PUBLIKOETAN SARBIDE ELEKTRONIKOA IZATEARI BURUZKO LEGEAK?**
- 15a) Aurreneko aldiz onartzen da herritarrek, izapide administratiboak egitean, baliabide elektronikoak erabiltzeko eskubidea dutela.  
15b) Administrazioek bide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiltzea.  
15c) Administrazioek teknika eta baliabide informatikoen erabilera bultzatzea.  
15d) Erregistro telematikoak sortzea.
- 16 HERRITARREK ZERBITZU PUBLIKOETAN SARBIDE ELEKTRONIKOA IZATEARI BURUZKO LEGEAK BERARIAZ ONARTZEN DITU ZENBAIT ESKUBIDE; BESTEAK BESTE...**
- 16a) Neutraltasun teknologikorako eskubidea.  
16b) Edozein dokumentu-motaren kopia elektronikoak eskuratzeko eskubidea.  
16c) Zein kanal erabili aukeratzeko eskubidea.  
16d) Inhibizio telematikorako eskubidea.
- 17 HERRITARREN BERMEAK OSO-OSORIK GORDETZEAREN PRINTZIPIOAK, SARBIDE ELEKTRONIKOA IZATEARI BURUZKO LEGEAN JASOTAKOAK, ZER ESAN NAHI DU?**
- 17a) Administrazioak behar bezala tratatu behar duela herritarra.  
17b) Administrazioak neutrala izan behar duela, eta aukera teknologikoen artean hautatzeko independentzia bermatu behar duela.  
17c) Izapide bakoitzari dagozkion bermeak eta segurtasun-neurriak baino ez direla eskatuko, eta, era berean, behar diren datuak baino ez.  
17d) Prozeduren kudeaketa elektronikoak berdin balio behar duela, paperez zein euskarri elektronikoz izapidetuta ere.
- 18 APARTEKO ETA PRESAZKO BEHARRIZANA DAGOENEAN, EMAN AL DEZAKE GOBERNUAK LEGE-INDARREKO ARAURIK?**
- 18a) Ez, Gobernuak ezin dezake lege-indarreko araurik eman.  
18b) Bai, eta legegintza-dekretuak deitzen dira.  
18c) Bai, eta lege-dekretuak deitzen dira.  
18d) Bai, eta zerbitzu-instrukzioak deitzen dira.

- 19 BA AL DAGO LEGERIK, ONARTUA IZATEKO, DIPUTATUEN KONGRESUAREN GEHIENGO OSOA BEHAR DUENIK?**
- 19a) Bai, era guztietako legeak.  
19b) Bai, lege organikoak.  
19c) Bai, aurrekontuen legeak.  
19d) Ez, bat ere ez, nahikoa da beti gehiengo sinplea izatea.
- 20 ONDOKO EZAUGARRIETATIK, ZEIN DAGOKIE ERREGELAMENDU INDEPENDENTEEI?**
- 20a) Beste edozein arau juridikoren gaintik daude.  
20b) Lege batek egindako araugintza-igorpenen bidez ematen dira.  
20c) Antolamendu-gaien eremuaren barnean baino ezin dira eman.  
20d) Zirkularren balio eta maila bera daukate.
- 21 BA AL DUTE UDALERRIEK ARAU JURIDIKOAK EMATEKO AHALIK?**
- 21a) Ez, arau juridikoak aplikatzeko ahala baino ez dute.  
21b) Bai, legegintza-ahala daukate.  
21c) Bai, erregelamenduak egiteko ahala daukate.  
21d) Bai, legegintza-ahala eta erregelamenduak egiteko ahala daukate.
- 22 ADMINISTRAZIO BEREAN EGINKIZUNAK BEHERAGOKO MAILAKO ORGANOEEN EDO ORGANO PERIFERIKOEN MESEDETAN ESLEITZEN DIRENEAN, NOLA ESATEN ZAIO PRINTZIPIO HORRI?**
- 22a) Lurralde-deszentralizazioa.  
22b) Deszentralizazio funtzionala.  
22c) Deskontzentrazioa.  
22d) Deskoordinazioa.
- 23 ZEIN ADMINISTRAZIO PUBLIKOTAN SARTZEN DIRA ESTATUKO GOBERNUAREN ORDEZKARIODETZAK?**
- 23a) Estatuko Administrazio orokorrean.  
23b) Estatuko Administrazio periferikoan.  
23c) Autonomia-erkidegoetako Administrazio orokorrean.  
23d) Probintzietako Administrazio orokorrean.
- 24 NORK IZENDATZEN DITU EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ALDUNDI BAKOITZEKO GOBERNU KONTSEILUA OSATZEN DUTEN FORU-DIPUTATUAK?**
- 24a) Lurralde Historiko bakoitzeko diputatu nagusiak.  
24b) Lurralde Historiko bakoitzeko Batzar Nagusiek.  
24c) Lehendakariak.  
24d) Estatuko Gobernuak Euskadin daukan Ordezkariek.

- 25 ADMINISTRAZIO-PROZEDURAREN LEGERIAREKIN BAT ETORRIZ, NORI DAGOKIO ADMINISTRAZIO PUBLIKO BEREKO ORGANOEEN ARTEAN SORTUTAKO ESKUMEN-GATAZKAK EBAZTEA?**
- 25a) Konstituzio Auzitegiari.
  - 25b) Guardiako epaitegiari.
  - 25c) Goragoko lurralde-administrazioari.
  - 25d) Hierarkian komuna den goragoko organoari.
- 26 ONDOKO HAUETATIK BAT BAIZIK EZ DA ADMINISTRAZIO-EGINTZA. ZEIN?**
- 26a) Udalaren obra-proiektu bat onartzea.
  - 26b) Udal-zerbitzuek espaloi bat konpontzea.
  - 26c) Udalaren estolderia-zerbitzua arautzea.
  - 26d) Administrazio-prozedura baten barruan partikularrek egindako alegazioak.
- 27 ZER DIO ADMINISTRAZIO-PROZEDURAREN LEGERIAK AURREKO JARDUNETAN ERABILITAKO IRIZPIDEekin BAT EZ DATOZEN ADMINISTRAZIO-EGINTZEI BURUZ?**
- 27a) Ezin direla eman.
  - 27b) Ematekotan, baliogabetzat hartuko direla.
  - 27c) Ematekotan, eraginik gabetzat hartuko direla.
  - 27d) Arrazoitu beharrekoak direla.
- 28 ADMINISTRAZIOAK EZAR AL DEZAKE HERTSATZEKO ISUNIK?**
- 28a) Ez, justizia-auzitegiek baino ezin dezakete hori egin.
  - 28b) Bai, arau-hauste oso larriak egiteagatik.
  - 28c) Bai, administrazio-egintza batzuk nahitaez betearazteko.
  - 28d) Bai, zerga-betebeharrak ez betetzeagatik ezarritako errekaru gisa.
- 29 ADIERAZI BAI EZTAPEN HAUEN ARTEAN ZEIN DEN ZUZENA:**
- 29a) Administrazioak herritarren eskabide guztiak ebatzi beharra du.
  - 29b) Administrazio-prozeduran ebazpena emateko eta jakinarazteko gehienezko epea 6 hilabetekoa da.
  - 29c) Prozedura bat ebazteko epea, prozedura guztietan, herritarrak eskabidea aurkeztu eta biharamunean hasten da kontatzen.
  - 29d) Administrazio-prozeduran ebazpena emateko gehienezko epea 6 hilabetekoa da.
- 30 KONSTITUZIOAN EZARRITAKO ESKUMEN-BANAKETAREKIN BAT ETORRIZ, NORI DAGOKIO ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEA ARAUTZEKO ESKUMENA?**
- 30a) Europar Batasunari.
  - 30b) Estatuari.
  - 30c) Autonomia-erkidegoei.
  - 30d) Kasu batzuetan, Estatuari eta, beste batzuetan, Autonomia-erkidegoei.

**31 ESKUBIDE-ZERRENDA HONETAN BADAGO BAT INTERESATU EZ DIREN PERTSONEK ERE BALIA DEZAKETENA ADMINISTRAZIO-PROZEDURAN. ZEIN DA?**

- 31a) Errefusatzeko eskubidea.
- 31b) Herri Administrazioetako erregistro eta artxiboetara sarbidea izateko eskubidea, baldin eta prozedura amaitu egin bada.
- 31c) Prozeduraren izapidetzea zertan den edozein unetan jakiteko eskubidea.
- 31d) Administrazio Publikoen erantzukizuna eskatzeko eskubidea.

**32 LEGEAREN ARABERA, ZER BETEKIZUN BETE BEHAR DA ADMINISTRAZIO-PROZEDURA BATEAN PERTSONA BATEK BESTE BATEN ORDEZKARI GISA JARDUN AHAL IZATEKO?**

- 32a) Gaitasun juridikoa, besterik ez.
- 32b) Jarduteko gaitasuna.
- 32c) Goi mailako titulazio juridikoa.
- 32d) Goi mailako titulazioa.

**33 ZER EZARTZEN DU INDARREKO LEGERIAK HERRITARREK ESTATUKO ADMINISTRAZIOAREKIN DITUZTEN HARREMANETAN EUSKARA ERABILTZEARI BURUZ?**

- 33a) Debekatuta dagoela.
- 33b) Estatuko Administrazio Orokorraren organoekin erabiltzeko eskubidea dutela, baldin eta organo horien egoitza hizkuntza hori ofiziala den autonomia-erkidegoetan kokatuta badago.
- 33c) Estatuko Administrazio Orokorraren edozein organorekin erabiltzeko eskubidea dutela.
- 33d) Estatuko Administrazio Orokorraren organoekin erabiltzeko beharra dutela, baldin eta organo horien egoitza hizkuntza hori ofiziala den autonomia-erkidegoetan kokatuta badago.

**34 ZER ESAN NAHI DU EDOZEIN HERRITARREK ADMINISTRAZIOAREN ARTXIBO ETA ERREGISTROETARAKO SARBIDEA IZATEKO ESKUBIDEA IZATEAK?**

- 34a) Kultur intereseko administrazio-egoitzetan doan sar daitekeela.
- 34b) Amaitu gabe dauden administrazio-prozedurei buruzko dokumentuen kopiak edo ziurtagiriak eskura ditzakeela.
- 34c) Amaituta dauden administrazio-prozedurei buruzko dokumentuen kopiak edo ziurtagiriak eskura ditzakeela.
- 34d) Administrazio Publiko baten esku dagoen edozein dokumentu zuzenean azter dezakeela.

**35 ZER ESAN NAHI DU ERREGISTRO-UNITATEAREN PRINTZIPIOAK?**

- 35a) Administrazio Publiko guztietarako erregistro orokor bakarra izan behar dela.
- 35b) Administrazio Publiko bakoitzak erregistro orokor bat izan behar duela.
- 35c) Administrazio-organo bakoitzak erregistro orokor bat izan behar duela.
- 35d) Administrazio-unitate bakoitzak erregistro orokor bat izan behar duela.

- 36 BA AL DAGO AUTONOMIA-ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ERREGISTRO BATEAN ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRARI ZUZENDUTAKO IDAZKIA AURKEZTERIK?**
- 36a) Bai.  
36b) Bi administrazioen artean horretarakoxe egindako hitzarmena behar da hori egin ahal izateko.  
36c) Bi administrazioek aukera hori erregelamendu bidez garaturik eduki behar dute horretarako.  
36d) Ez.
- 37 ADMINISTRAZIO-PROZEDURAREN LEGERIAREKIN BAT ETORRIZ, NOIZ JOTZEN DA ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ADMINISTRAZIOAREN KABUZ HASITA DAGOELA?**
- 37a) Hasteko agindua jasotzen denean goitik.  
37b) Hasteko eskaera arrazoitua jasotzen denean.  
37c) Hasteko salaketa jasotzen denean.  
37d) Eskumena duen organoak hasteko erabakia hartzen duenean.
- 38 ADMINISTRAZIOKO EPEAK ZENBATZEAN, ZER GERTATZEN DA EPEAREN AZKEN EGUNA BALIOGABEA DENEAN?**
- 38a) Epea amaitutzat joko dela aurreko egun baliodunean.  
38b) Epea amaitutzat joko dela aurreko egunean.  
38c) Epea hurrengo egunera luzatuko dela.  
38d) Epea hurrengo egun baliodunera luzatuko dela.
- 39 ZEIN IZAPIDE GAUZATU BEHAR DA BEHIN PROZEDURAREN INSTRUKZIOA EGIN DENEAN ETA EBAZPEN-PROPOSAMENA EMAN BAINO LEHENAGO?**
- 39a) Informazio publikoko izapidea.  
39b) Frogetarako izapidea.  
39c) Entzunaldiaren izapidea.  
39d) Zuzenketen izapidea.
- 40 NORI DAGOKIO ADMINISTRAZIO-ERREKURTSOAK BIDERATU ETA EBAZTEA?**
- 40a) Errekurritutako egintza eman zuen Administrazio Publiko berari.  
40b) Hierarkian, errekurritutako egintza eman zuen Administrazio Publikoaren gainean dagoen Administrazio Publikoari.  
40c) Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari.  
40d) Errekurritutako egintzaren arloan eskumena duen jurisdikzioari.
- 41 ZER ERREKURRITU DAITEKE GORAKO ERREKURTSOAREN BIDEZ?**
- 41a) Era guztietako administrazio-egintzak eta araudiak.  
41b) Era guztietako administrazio-egintzak.  
41c) Administrazio-bidea amaitzen duten administrazio-egintzak.  
41d) Administrazio-bidea amaitzen ez duten administrazio-egintzak.



**42 ZEIN EPE DAGO ESANBIDEZKO ADMINISTRAZIO-EGINTZA BATEN KONTRA BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA JARTZEKO?**

- 42a) Hamar egun.
- 42b) Hilabete bat.
- 42c) Hiru hilabete.
- 42d) Urte bat.

**43 JAR AL DAITEKE ADMINISTRAZIO-ERREKURTSOREN BAT EGINTZA IRMOEN AURKA?**

- 43a) Ez, egintza irmoak ukitu ezinezkoak baitira.
- 43b) Bai, gorako errekurtsu arrunta.
- 43c) Bai, aukerako berraztertze errekurtsua.
- 43d) Bai, berrikusteko errekurtsu berezia.

**44 ZEIN ERATAKO ERANTZUKIZUNA DAUKA ADMINISTRAZIOAK, OHIKO JARDUNAREN ONDORIOZ, HIRUGARRENEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE?**

- 44a) Ondare-erantzukizuna.
- 44b) Erantzukizun penala.
- 44c) Diziplina-erantzukizuna.
- 44d) Erantzukizun politikoa.

**45 ZER FROGATU BEHAR DU ADMINISTRAZIOAREN KALTEA JASAN DUEN PERTSONAK KALTEA ANTIJURIDIKOA IZATEKO BETEKIZUNA BETETZAT JOTZEKO?**

- 45a) Kaltea legez kontrako administrazio-jardunaren ondoriozkoa dela.
- 45b) Kaltea delituzko jardun publiko baten ondoriozkoa dela.
- 45c) Kaltea jardun publiko diskriminatzaile baten ondoriozkoa dela.
- 45d) Kaltetutako pertsonak ez duela zertan kaltea jasan.

**46 BA AL DAGO ADMINISTRAZIOARI KALTE-GALERAK ERREKLAMATZEKO EPERIK?**

- 46a) Bai, erreklamatzeko eskubidea urtebetera preskribatuko da.
- 46b) Bai, erreklamatzeko eskubidea sei hilabetera preskribatuko da.
- 46c) Bai, erreklamatzeko eskubidea hiru hilabetera preskribatuko da.
- 46d) Ez, erreklamatzeko eskubidea ez da preskribatzen.

**47 DATU PERTSONALAK BABESTEA DELA-ETA, ZEIN LEGEZKO KONTZEPTURI DAGOKIO HURRENGO DEFINIZIOA? "TRATATZEN DIREN DATUEN GAINEKO TITULARTASUNA DUEN PERTSONA FISIKOA"**

- 47a) Ukitua edo interesduna.
- 47b) Fitxategiaren edo tratamenduaren arduraduna.
- 47c) Tratamenduaren arduraduna.
- 47d) Fitxategia.

- 48 DATU PERTSONALAK BABESTEARI DAGOKIONEZ, ZER ESKATZEN DU DATUEN KALITATEAREN PRINTZIOAK?**
- 48a) Izaera pertsonaleko ahalik eta datu gutxien bildu eta tratatu behar direla.  
48b) Izaera pertsonaleko ahalik eta datu gehien bildu eta tratatu behar direla.  
48c) Datu pertsonal guztiak bildu eta tratatu behar direla.  
48d) Ez dela ezein datu pertsonal bildu ez tratatu behar.
- 49 DATU PERTSONALEN TITULARRAK BA AL DU ESKUBIDERIK BERE DATUAK EZABA DAITEZEN ESKATZEKO?**
- 49a) Bai, zuzentzeko eskubidea da hori.  
49b) Bai, ezerezteko eskubidea da hori.  
49c) Bai, aurka egiteko eskubidea da hori.  
49d) Ez, gehienez ere datuak blokeatzea lor dezake, baina ez ezabatzea.
- 50 PERTSONA BATEK, EDOZEIN BIDE ERABILITA, BAIMENIK GABE, DATU PERTSONALAK LORTZEN BADITU, EGIA AL DA PERTSONA HORRI ESPETXE-ZIGORRA EZAR DAKIOKEELA?**
- 50a) Bai, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Legean dago ezarrita.  
50b) Bai, Zigor Kodeak ezartzen du.  
50c) Ez, jokabide hori zigortzeko isunak baino ezin daitezke jarri.  
50d) Ez, jokabide hori ez dago zigortuta.
- 51 ZER SARITZEN DA PRODUKTIBITATE-OSAGARRIAREN BIDEZ?**
- 51a) Dedikazio berezia.  
51b) Aparteko jarduera.  
51c) Lanaldi normaletik kanpora emandako zerbitzuak.  
51d) Nekagarritasuna edo arriskua.
- 52 DIZIPLINAKO ZEHAPENAK DIRA...**
- 52a) Ohartarazpena eta gaitzespena.  
52b) Zerbitzutik behin-behinean kentzea eta diziplinazko kaleratzea.  
52c) Zereginetatik behin-behinean baztertzea eta nahitaez tokiz aldatzea.  
52d) Aurreko guztiak diziplinako zehapenak dira.
- 53 NOLA SAILKATZEN DIRA LANGILE FUNTZIONARIOEN ORDAINSARIAK?**
- 53a) Bitan sailkatzen dira: soldata eta osagarriak.  
53b) Bitan sailkatzen dira: oinarrizkoak eta osagarriak.  
53c) Lautan sailkatzen dira: soldata, antzintasuna, osagarriak eta haborokinak.  
53d) Hirutan sailkatzen dira: finkoak, osagarriak eta emandako zerbitzuari dagozkion kalte-ordainak.

**54 LANGILEAK AUKERATZEKO OPOSIZIO-LEHIAKETA BIDEZKO PROZESU BATEAN EUSKARA JAKITEA MEREZIMENDU EDO MERITUTZAT HARTZEN BADA, ZER PORTZENTAJE EMANGO ZAIO GEHIENEZ?**

- 54a) Hautaketa-prozesu osoan guztira eta gehienez jota lor daitekeen puntuazioaren %20.
- 54b) Lehiaketa-fasean gehienez lor daitekeen puntuazioaren %20.
- 54c) Hautaketa-prozesu osoan guztira eta gehienez jota lor daitekeen puntuazioaren %45.
- 54d) Oposizio-fasean gehienez lor daitekeen puntuazioaren %45.

**55 LANPOSTUAREN TITULARRA ADOS BADAGO, PLANGINTZALDIAREN HASIERAN, ZENBAT URTE BAINO GEHIAGO IZAN BEHARKO DITU HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA BETE BEHARRA IZAN EZ DEZAN?**

- 55a) 38 urte.
- 55b) 40 urte.
- 55c) 43 urte.
- 55d) 45 urte.

**56 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ADMINISTRAZIOAN, ARAUDIAREN ARABERA, ZEIN DA EPE OROKORRA DOKUMENTAZIOA BULEGOKO ARTXIBOETATIK HURRENGO ARTXIBO-MAILARA TRANSFERITZEKO?**

- 56a) Teknikariek erabakitzen dutenean.
- 56b) 5 urte, tramitazioa hasten denetik.
- 56c) 2 urte, tramitazioa amaitzen denetik.
- 56d) Ez dago eperik zehaztuta.

**57 ZEIN DATU JARRI BEHAR DA NAHITAEZ EDOZEIN ARTXIBO-MAILATARA TRANSFERITUTAKO KUTXAN?**

- 57a) Saila, zer unitatek ekoiztu duen, kutxaren zenbakia, barruan dauden espedienteen zerrenda.
- 57b) Saila, zer unitatek ekoiztu duen, dokumentu-saila, barnean jasotako dokumentazioaren mugako urteak eta kutxaren identifikatzailea.
- 57c) Saila, zer unitatek ekoiztu duen, bertan dauden espedienteak, espediente bakoitzaren data.
- 57d) Saila, dokumentu-saila, kutxaren identifikatzailea, dokumentuen mugako urteak, barruan dauden espedienteen zerrenda.

**58 ESPEDIENTEA ARTXIBATZERAKOAN, ERORI ETA KARPETAKO DOKUMENTU GUZTIAK DESORDENATU EGITEN DIRA. ZER EGIN BEHARKO LITZATEKE DOKUMENTU HORIEKIN?**

- 58a) Ordenatu, sekuentzia alfanumerikoari jarraituta.
- 58b) Ordenatu, sekuentzia kronologikoari jarraituta.
- 58c) Ordenatu, prozedura-sekuentziari jarraituta.
- 58d) Aurreko aukera guztiak zuzenak dira.

**59 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ERREGISTRO OROKORRAK SORTZEKO 72/2008 DEKRETUAREN ARABERA, HAREN APLIKAZIO-EREMUTIK KANPORA DAUDE:**

- 59a) Erakunde autonomoak.
- 59b) Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, administrazio-ahalak baliatzen badituzte.
- 59c) Epaitegi eta auzitegien jarduerak.
- 59d) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren sailak.

**60 ADMINISTRAZIOAK BETE BEHARREKO EPEAK ETA, BEREZIKI, BERARIAZKO EBAZPENA JAKINARAZTEKO GEHIENeko EPEA, NOIZ HASIKO DA KONTATZEN?**

- 60a) Eskabidea edo idazkia Estatuko Administrazioaren edozein organo administratiboren erregistroan aurkezten den egunean.
- 60b) Eskabidea edo idazkia postetxeetan aurkezten den egunean.
- 60c) Eskabidea edo idazkia organo eskudunaren erregistro-bulegoetan izapidetzeko sartzen den egunean.
- 60d) Eskabidea edo idazkia udalen batean aurkezten den egunean, baldin eta udal horrekin dagokion hitzarmena sinatu bada.

**61 ZER DA ERREGISTRO TELEMATIKO BAKARRA?**

- 61a) Sinadura digitala ziurtatzeko aplikazioa da.
- 61b) Onartutako ziurtagiriak egiaztatzeke aplikazioa da.
- 61c) Tramitazio telematikoko zerbitzu komuna da.
- 61d) Elkarreragingarritasun Eskema Nazionalaren zerbitzu horizontala da.

**62 DOKUMENTUAK OSOTASUN BALDINTZA BETETZEN DUELA ESANEZ GERO, ZER ESAN NAHI DU HORREK?**

- 62a) Dokumentuak agerian duela bere jatorria, zalantzarik gabe.
- 62b) Dokumentua bakarra dela.
- 62c) Dokumentuak osorik eta bete-betean mantentzen dituela edukia eta egitura.
- 62d) Dokumentua ezin dela ez manipulatu ez aldatu.

**63 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA ERAKUNDE AUTONOMOEN EREMUAN AGIRIEN KOPIAK ETA ZIURTAGIRIAK EMATEARI ETA SINADURAK EGIAZTATZEARI BURUZKO 149/1996 DEKRETUAN JASOTAKO KOPIA-MOTEI DAGOKIENEZ, HURRENGO ZERRENDETATIK ZEIN DA ZUZENA?**

- 63a) Arrunta, legezkatua, kautoa eta konpulsatua.
- 63b) Arrunta, ziurtatua, legezkatua eta konpulsatua.
- 63c) Kautoa, kautotua, arrunta eta konpulsatua.
- 63d) Arrunta, kautoa, ziurtatua eta legezkatua.

- 64 SINADURA ELEKTRONIKOKO MOTEI DAGOKIENEZ, ZEINETAN JASOTZEN DIRA BERME OSOZ NORTASUNA, INTEGRITATEA ETA UKAEZINTASUNA:**
- 64a) Sinadura aurreratuan.
  - 64b) Sinadura onartuan.
  - 64c) Sinadura legezkatuan.
  - 64d) Sinadura digitalean.
- 65 PDCA ZIKLOAK EDO HOBEKUNTZA ZIKLOAK PROPOSATZEN DITUEN 4 FASEAK:**
- 65a) Plangintza egitea, egitea, egiaztatzea eta egokitzea, modu sistematikoan.
  - 65b) Eskatzea, ematea, kobratzea eta apuntatzea, modu sistematikoan.
  - 65c) Aurrekontua egitea, onartzea, egitea eta ebaluatzea, modu sistematikoan.
  - 65d) Plangintza egitea, diseinatzea, ziurtatzea eta aholkatzea, modu sistematikoan.
- 66 ISO 9001:2000 EREDUA ETA EFQM EREDUA...**
- 66a) ... eredu bateraezinak dira, metodologia antagonikoak baitituzte.
  - 66b) ... Japonen sortu ziren 80ko hamarkadaren hasieran.
  - 66c) ... eredu bateraezinak dira, erakunde desberdinek babesten dituztelako.
  - 66d) ... erabat osagarriak dira, bi ereduaren oinarria prozesuetan oinarritutako kudeaketa erabiltzea eta bezeroari begiratzea baita.
- 67 BULEGOKO ZEIN MAKINAREKIN LOTZEN DUZU TONERRA?**
- 67a) Ordenagailuarekin.
  - 67b) Proiektorearekin.
  - 67c) Fotokopiagailuarekin.
  - 67d) Koadernagailuarekin.
- 68 ORDENAGAILU BATEAN, ZER DA “PUZ”?**
- 68a) Plaka nagusia edo “mother board”.
  - 68b) Prozesadorea edo mikroprozesadorea.
  - 68c) Memoria mota bat.
  - 68d) Programa ukigarrien zentroa.
- 69 PLAKA NAGUSIKO HARI EDO KABLE INPRIMATUEN MULTZOA; HORTIK JOATEN DIRA ORDENAGAILU BATEKO GAILUEN ARTEKO DATUAK. ZER IZEN DU HORREK?**
- 69a) Bus-a.
  - 69b) Slot-ak.
  - 69c) Atakak.
  - 69d) CMOS.

**70 ZEIN ERATAKO INPRIMAGAILUK ESKAINTZEN DU KALITATERIK ETA ABIADURARIK HANDIENA?**

- 70a) Inprimagailu matrizialak.
- 70b) Tintazko inprimagailuak.
- 70c) Laser inprimagailuak.
- 70d) LCD inprimagailuak.

**71 ZER BETEKIZUN IZAN BEHAR DU ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK SUSTATZERA ETA SALTZERA ZUZENDUTAKO BIDALKETAK, ZUZENKO PUBLIZITATETZAT HAR DADIN?**

- 71a) Bostehun jasotzaile baino gehiagori igorri behar zaie.
- 71b) Igorleak objektuan bertan edo horren bilgarrian adierazitako helbidera zuzenduta egon behar du.
- 71c) Gutun irekian banatu behar da.
- 71d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**72 ZEIN ORDAINKETA-BITARTEKO DAUKAGU, FRANKEOAZ BESTE?**

- 72a) Igorpena.
- 72b) Aurreordainketa.
- 72c) Txeketa.
- 72d) Denak dira okerrak.

**73 ZER ZERBITZU ERABILIKO DUGU BESTE PERTSONA BATZUEN AURREAN FROGAZAT ERABIL DAITEZKEEN DOKUMENTU GARRANTZITSUAK IGORTZEKO, PRESAZ ETA IZENPETUTA?**

- 73a) Telegrama.
- 73b) Telefax-a.
- 73c) Burofax-a.
- 73d) Kopia ziurtatua.

**74 OTSAILAREN 9KO 208/1996 DEKRETUAK, ADMINISTRAZIOAREN INFORMAZIO ETA HERRITARREN ARRETARAKO ZERBITZUAK ARAUTZEN DITUENAK, 2. ETA 3. ARTIKULUETAN, ADMINISTRAZIO-INFORMAZIOA BI MOTATAKOA IZAN DAITEKEELA EZARTZEN DU:**

- 74a) Administrazio-informazioa eta zerbitzu-informazioa.
- 74b) Informazio orokorra eta partikularra.
- 74c) Oinarrizko informazioa eta aurreratua.
- 74d) Informazio generikoa eta pertsonalizatua.

**75 PERTSONA BATEK ERREKLAMAZIOA AURKEZTU ETA ERANTZUNA JASO NAHI BADU, HURRENGO DATUETATIK ZEIN EZ DU ZERTAN EMAN NAHITAEZ?**

- 75a) Izen-abizenak.
- 75b) NAN
- 75c) Jaioteguna.
- 75d) Helbidea.

**76 ORO HAR, KOMUNIKAZIOAREN ESKEMA HONAKO HAUEK OSATZEN DUTELA ESAN DEZAKEGU:**

- 76a) Igorlea, mezua eta hartzailea.
- 76b) Igorlea, mezua, hartzailea eta kanala.
- 76c) Igorlea, mezua, hartzailea, kanala eta zarata.
- 76d) Igorlea, mezua, hartzailea, kanala, zarata eta bitartekoa.

**77 KOMUNIKAZIOA DELA ETA, BADIRA OZTOPO SUBJEKTIBO BATZUK MEZUAREN EDUKI OSOA ULERTZEA ZAILTZEN DUTENAK. BESTEAK BESTE, "ENTZUMEN SELEKTIBOA" AIPA DEZAKEGU. HAU ESAN NAHI DU:**

- 77a) Mezua behar bezala jasotzea baldintzatzen duten interferentziak.
- 77b) Inkontzienteki bada ere, kontrako ideiak aintzat ez hartzeko joera.
- 77c) Aldez aurretik pentsatutako eskema mentalak.
- 77d) Frekuentzia jakin batzuk entzutea galarazten duen hipoakusia-mota bat da.

**78 ADMINISTRAZIO-EBAZPENAK ETA ADMINISTRAZIO-EGINTZAK HERRITARREI JAKINARAZTEKO DOKUMENTUAK DIRA, EBAZPEN ETA EGINTZA HORIEK HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK UKITZEN DITUZTENEAN. ZEINTZUK DIRA DOKUMENTU HORIEK?**

- 78a) Jakinarazpenak.
- 78b) Ofizioak.
- 78c) Eginbideak.
- 78d) Probidentziak.

**79 ZEIN ERATAKO AGIRIAK ERABILIKO DITUGU JARDUERA BAT ARAUTZEKO?**

- 79a) Ofizioa.
- 79b) Ziurtagiria.
- 79c) Jakinarazpena.
- 79d) Agindua.

**80 JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILAREN IDATZI BATEAN, ZEIN DA EGUNA ETA SINADURA JARTZEKO DISEINU ZUZENA?**

- 80a) Vitoria-Gasteizen 2010eko uztailaren 30ean. Sailburua.
- 80b) 2010EKO UZTAILAREN 30EAN. JUSTIZIAKO SAILBURUA.
- 80c) Vitoria-Gasteiz, 2010eko uztailaren 30a. Justizia eta Herri Administrazioiko sailburua.
- 80d) Vitoria-Gasteiz, 2010eko uztailaren 30ean. Justizia eta Herri Administrazioiko sailburua.

**81 OFIZIO BATEAN, ZEIN DA HASIERAKO ETA AMAIERAKO AGURRA EMATEKO MODU EGOKIA?**

- 81a) Jaun agurgarria:..... Har ezazu besarkada handi bat.
- 81b) Lagun estimatua:..... Agur bero bat.
- 81c) Andre hori:..... Horrenbestez, agur.
- 81d) Lankide hori:..... Besarkada handi bat

**82 GASTUEN AURREKONTUARI DAGOKIONEZ, HAUEK DIRA AURREKONTUA EGIKARITZEKO FASEAK:**

- 82a) Gastua baimentzea, gastuaren dispozizioa, ordaintzea.
- 82b) Gastua baimentzea, gastuaren dispozizioa, betebeharra bere gain hartzea, ordaintzea.
- 82c) Gastua baimentzea, kreditu osoaren dispozizioa, betebeharra bere gain hartzea, ordaintzea.
- 82d) Gastua baimentzea, gastua gaitzea, kreditu-gerakinak sartzeta, ordaintzea.

**83 GASTUEN AURREKONTUARI DAGOKIONEZ, KONPROMISO-KREDITUAK:**

- 83a) Aurreko urteetan hartutako betebeharrei aurre egiteko dira.
- 83b) Sozietate Publikoei dagozkienak dira.
- 83c) Onartu eta ondorengo aurrekontu-ekitaldietan norberaren gain hartu beharreko betebeharrei aurre egiteko kredituak dira.
- 83d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**84 LANGILE-GASTUAK:**

- 84a) Eragiketa arruntak dira.
- 84b) Kapital-eragiketak dira.
- 84c) Finantza-eragiketak dira.
- 84d) Zorpetze eragiketak dira.

**85 AURREKONTUAN, ORDAINKETA-KREDITUEN TRANSFERENTZIAK:**

- 85a) Kreditu gehigarriak dira.
- 85b) Aurrekontuaren guztizko zenbatekoari eragiten diote.
- 85c) Ez diote eragiten aurrekontuaren guztizko zenbatekoari.
- 85d) Banku-transferentziak dira.

**86 DIRU-SARREREN AURREKONTUARI DAGOKIONEZ, FORU ALDUNDIEK EGITEN DITUZTEN EKARPENAK:**

- 86a) Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuaren diru-sarreretan sartzen dira.
- 86b) Ez dira sartzen Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuaren diru-sarreretan.
- 86c) Neurri batean baino ez dira sartzen.
- 86d) Ez dago halakorik.

**87 DIRU-SARREREN AURREKONTUA BETEARAZTEKO FASEAK:**

- 87a) Aitortutako eskubideak eta gaitutako eskubideak.
- 87b) Sartutako eskubideak eta diru-sarrereren baimenak.
- 87c) Kalkulatutako eskubideak eta sartutako eskubideak.
- 87d) Aitortutako eskubideak eta sartutako eskubideak.



**88 BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA (BEZ)**

- 88a) Zuzeneko zerga da.
- 88b) Eusko Legebiltzarrak biltzen du.
- 88c) Zeharkako zerga da.
- 88d) Zerga hori ez da Kontzertu Ekonomikoan agertzen.

**89 ZORPETZE PUBLIKOA...**

- 89a) Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuaren diru-sarreretan sartzen da.
- 89b) Zuzeneko zerga da.
- 89c) Zeharkako zerga da.
- 89d) Ez da sartzen Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuaren diru-sarreretan.

**90 LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI DAGOKIONEZ, PREBENTZIO-EKINTZAREN BARRUAN SARTZEN DA...**

- 90a) Langilea lan-baldintzetara moldatu beharra.
- 90b) Lana pertsonarentzat moldatzea.
- 90c) Babes indibidualari, babes kolektiboaren aldean, garrantzi handiagoa ematea.
- 90d) Babes kolektiborako bitartekoak saihestu beharra, eta horien ordez babes indibidualerako bitartekoak jartzea.

**91 OSASUNA ZAINTEARI DAGOKIONEZ...**

- 91a) Ez da beharrezkoa langilearen adostasuna.
- 91b) Aldian-aldian zaindu beharko da, lanari datzekion arriskuak aintzat hartuta.
- 91c) Laneko osasuna zaintzea ez dagokio enpresari, Osasun Sistema Publikoari baizik.
- 91d) Laneko osasuna zaintzea ez dagokio enpresari, lan-istripu eta gaixotasun profesionalen mutualitateei baino.

**92 BEREZIKI SENTIBERAK DIREN LANGILETZAT HARTZEN DIRA:**

- 92a) Ezaugarri pertsonalen edo egoera biologiko ezagunen ondorioz, lanak dakartzan arriskuen aurrean bereziki sentiberak direnak.
- 92b) Legez onartutako desgaitasun psikiko edo zentzumenezkoa duten langileak baino ez.
- 92c) Legez onartutako desgaitasun fisikoa duten langileak baino ez.
- 92d) Legez onartutako desgaitasun fisikoa edota desgaitasun psikiko edo zentzumenezkoa duten langileak baino ez.

**93 NOR HAR DAITEKE DATUAK BISTARATZEKO PANTAILAREN ERABILTZAILETZAT?**

- 93a) Datuak bistaratzeko pantailen aurrean egunean 2 ordu edo astean 15 ordu baino gehiago pasatzen dituzten pertsonak.
- 93b) Datuak bistaratzeko pantailen aurrean egunean 4 ordu edo astean 20 ordu baino gehiago pasatzen dituzten pertsonak.
- 93c) Datuak bistaratzeko pantailen aurrean egunean 2 ordu edo astean 10 ordu baino gehiago pasatzen dituzten pertsonak.
- 93d) Datuak bistaratzeko pantailaren aurrean lan egiten duten guztiak; berdin dio zenbat denbora pasatzen duten pantailaren aurrean.

**94 DATUAK BISTARATZEKO PANTAILA ERABILTZEN DEN LANPOSTUETAN, NEKE FISIKOAN EDO MUSKULUETAKO NEKEAN ESKU HARTZEN DUTEN FAKTOREEN ARTEAN, NABARMENTZEKOAK DIRA:**

- 94a) Begiaren eta testuaren arteko distantzia.
- 94b) Lanaren monotonia.
- 94c) Ataza gehiegi eta gomendatutako etenaldirik eza.
- 94d) Lente zuzentzaileak erabiltzea.

**95 ONDORENGO IKUSMEN-ARAZOETATIK, ZEIN EZ DA SARTZEN DATUAK BISTARATZEKO PANTAIEN ERABILERA OSASUNEAN DITUEN ERAGINEN ARTEAN?**

- 95a) Fotofobia.
- 95b) Glaukoma.
- 95c) Fokatzeko zailtasunak.
- 95d) Malko-jarioa.

**96 ERAIKIN BATEAN LARRIALDI BAT IZANEZ GERO, LANGILEEK...**

- 96a) Igogailua erabili ahal izango dute, barruan kerik ez badago.
- 96b) Derrigorrez zaurituta dagoenari lagundu beharko diote, arriskuak hartu behar badituzte ere.
- 96c) Ate eta leihoak irekiko dituzte, eraikina aireztatzeke eta ebakuazioa azkarragoa izan dadin.
- 96d) Ez dute ezein kasutan igogailurik, karga-jasogailurik edo eskailera mekanikorik erabiliko.

**97 LARRIALDIAREN LARRITASUNAREN ARABERA, HONELA SAILKATZEN DIRA LARRIALDI-EGOERAK:**

- 97a) Larrialdi txikia, larrialdi mugatua eta larrialdi partziala.
- 97b) Larrialdi txikia, larrialdi partziala eta larrialdi orokorra.
- 97c) Larrialdi partziala, larrialdi mugatua eta larrialdi orokorra.
- 97d) Larrialdi txikia, larrialdi mugatua eta larrialdi orokorra.

**98 ISTRIPUA IZAN DUEN PERTSONA BATI LAGUNTZEAN, GORPUTZAREN ZATI BATEAN KREPITAZIOA ANTZEMATEN BADUGU, HAU PENTSATU BEHAR DUGU:**

- 98a) Hezurren bat hautsita duela.
- 98b) Erredura sakona duela, dermisari eragiten diona.
- 98c) Erredura kimikoa izan duela.
- 98d) Erredura elektrikoa izan duela.

**99 ZIURRENIK EPILEPSIAK ERAGINDAKOAK IZANGO DIREN KONBULTSIOEN AURREAN, ZER EGIN BEHAR DUGU LEHENENGO ETA BEHIN?**

- 99a) Biktimari gogor eutsiko diogu, espasmo muskularren eraginez lesioak saihesteko.
- 99b) Ahoan objektu bigun bat sartuko diogu, mihian haginka egin ez dezan.
- 99c) Jantziren bat jarriko diogu buru azpian, burkoa balitz bezala.
- 99d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**100 ZERTARAKO EGITEN DA HEIMLICHEN MUGIMENDUA?**

- 100a) Bihotz-biriketako bizkortzerako erabiltzen da.
- 100b) Aire-bideen buxadura dagoenean.
- 100c) Istripua izan duen pertsonak konortea duen ikusteko.
- 100d) Odoljarioa gelditzeko.

## **ERRESERBAKO GALDERAK**

**101 HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEARI BURUZKO OINARRIZKO ARAUAK...**

- 101a) Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen eksklusiboa da.
- 101b) Estatuaren eskumen eksklusiboa da.
- 101c) Autonomia Erkidegoaren eta Estuaren arteko eskumen konpartitua da.
- 101d) Estatuaren eta Autonomia Erkidegoaren arteko eskumen konkurrentea da.

**102 LANEKO SEXU-JAZARPENA...**

- 102a) Ez da bereizkeriatzat joko, delitutzat baizik.
- 102b) Sexuaren ziozko zuzeneko zein zeharkako eta alderantzizko bereizkeriatzat joko da.
- 102c) Sexuaren ziozko zeharkako bereizkeriatzat joko da.
- 102d) Sexuaren ziozko zuzeneko bereizkeriatzat joko da.

**103 ZER ARAU MOTA ONDORIOZTATZEN DA OINARRI-LEGE BATEN BIDEZ EGINDAKO LEGEGINTZARAKO ESKUORDETZA BAT GAUZATZETIK?**

- 103a) Testu artikulatua.
- 103b) Testu bategina.
- 103c) Testu kontsolidatua.
- 103d) Ministro-ordena.

**104 GORAGOKO ORGANOEI ESKUMENAK BALIATZEKO AUKERA EMATEN DIEN TEKNIKA, BETIERE BEHERAGOKO ORGANOREN BATI ESLEITUTAKO ESKUMEN BATEN KASU ZEHATZEAN. ZEIN DA TEKNIKA HORI?**

- 104a) Eskuordetza.
- 104b) Goragokoak eskumena bereganatzea.
- 104c) Kudeatzeko gomendioa.
- 104d) Ordezketza.

**105 HONAKO SUBJEKTU HAUETATIK, ZEIN GERATZEN DA ADMINISTRAZIO-PROZEDURAKO LEGEDIAREN APLIKAZIO-EREMUTIK KANPO?**

- 105a) Kapital publikoko merkataritza-baltzuak.
- 105b) Enpresa-erakunde publikoak.
- 105c) Estatu-agentziak.
- 105d) Erakunde autonomoak.

- 106 HONAKO KONTZEPTU HAUETATIK, ZEINEK DAKAR INTERESDUNAK GALDU EGINGO DUELA BERE ESKABIDEAN GALDEGINDAKO ESKUBIDEA?**
- 106a) Atzera egiteak.
  - 106b) Uko egiteak.
  - 106c) Iraungipenak.
  - 106d) Iraungitzeak.
- 107 ADMINISTRAZIOAK ERAGINDAKO KALTEEN ARLOAN, BAKARRIK HONAKO FAKTORE HAUETAKO BATEK UZTEN DU ERABAT KANPOAN KAUSALTASUN-LOTURA. ZEIN DA?**
- 107a) Ezusteko kasua.
  - 107b) Ezinbestea.
  - 107c) Biktimaren beraren errua.
  - 107d) Hirugarren baten egintza konkurrentea.
- 108 ENPLEGATU PUBLIKOEN ARAU-HAUSTE LARRIAK, NOIZ PRESKRIBATUKO DIRA?**
- 108a) Urtebetera.
  - 108b) 2 urtera.
  - 108c) 3 urtera.
  - 108d) 6 hilabetera.
- 109 DATUEN BABESERAKO 15/1999 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, IZAERA PERTSONALEKO DATUAK, NORI KOMUNIKATU DAKIZKIOKE?**
- 109a) Hirugarren bati, edozein kasutan, bere eginkizunak betetzeko.
  - 109b) Herri-administrazioari, kasu guztietan, inolako baldintzarik gabe.
  - 109c) Herri-administrazioari, lege-gaikuntza badago.
  - 109d) Aurreko kasu guztietan.
- 110 “KALITATE-ZIRKULU” DIRELAKOAK JAPONIAKO INDUSTRIAN SORTU ZIREN, 60KO HAMARKADAN. ZERTAN OINARRITZEN ZIREN ZIRKULU HORIEK?**
- 110a) Ordu arte zeudenak baino adostasun-kontrol are zurrunagoak ezartzean.
  - 110b) Kontrol hutsak gainditzean, eta, gainera, pertsonak fabrikazioan, ekoizpenean eta kudeaketan parte-hartzea sustatu zuten, hobetzeko iradokizunak egitera bultzatzen baitzituzten.
  - 110c) Produktu bakoitzean baldintza-portzentaje egiaztagarri bat ezartzean.
  - 110d) % 30etik gorako ekoizpen-akatsak egiten zituzten ekoizpen-atalak zigortzean.
- 111 ZEINEK ONARTU ZUEN, 97/67/EE ZUZENTARAU, ERKIDEGOKO POSTA-ZERBITZUEN BARNE-MERKATUA GARATZEKO ETA ZERBITZUAREN KALITATEA HOBETZEKO ARAU ERKIDEEI BURUZKOA?**
- 111a) Gorte Nagusiek.
  - 111b) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak.
  - 111c) Europako Batzordeak.
  - 111d) Eusko Legebiltzarrak.

**112 HONAKO DOKUMENTU MOTA HAUETATIK, ADIERAZI ZEIN EZ DEN HERRI-ADMINISTRATIOEK HERRITARREKIN KOMUNIKATZEKO SORTUTAKO DOKUMENTU BAT.**

- 112a) Ziurtagiriak.
- 112b) Ebazpenak.
- 112c) Erabakiak.
- 112d) Alegazio-idatzia.

**113 AURREKONTUAN, DIRU-SARRERAK...**

- 113a) Mugatzaileak dira.
- 113b) Gutxi gorabeherakoak dira.
- 113c) Ezin daitezke gainditu, baimenik gabe.
- 113d) Aurrekoetatik, bat ere ez.

**114 488/1997 ERREGE-DEKRETUAK, DATUAK BISTARATZEKO PANTAILEKIN EGITEN DEN LANARI BURUZKO SEGURTASUNEN ETA OSASUNEN GUTXIENEN XEDAPENAK EZARTZEN DITUENAK, NORI EGOZTEN DIO ARRISKUEN EBALUAZIOA EGITEKO ERANTZUKIZUNA?**

- 114a) Prebentzio-zerbitzuari.
- 114b) Enpresako medikuari.
- 114c) Lan-arriskuen prebentzioko teknikariari.
- 114d) Aurrekoetatik, inori ere ez.

**115 LARRIALDI-PLANEKO HELBURUAK BETETZEKO, LARRIALDI-PLAN GUZTIAK HAINBAT FASE DOKUMENTATUTAN EGITURATZEN DIRA; HORI DELA ETA, HONAKO HAUEK BILDUKO DITUZTE?**

- 115a) 4 agiri: arriskuen ebaluazioa, babeseko bitartekoak, larrialdi-plana eta ezarpena.
- 115b) 3 agiri: arriskuen ebaluazioa, babeseko bitartekoak eta ezarpena.
- 115c) 2 agiri: arriskuen ebaluazioa eta babeseko bitartekoak.
- 115d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**2. PROBA**  
**ERANTZUN-ORRIKO 151. LAUKITXOAN HASI BEHAR DUZU**  
**ERANTZUTEN**

- 151 SOZIETATE ANONIMO BATEK, EUSKO JAURLARITZAN, KALTE-GALEREN ERREKLAMAZIO BAT AURKEZTU ZUEN ADMINISTRAZIOAREN ONDARE-ERANTZUKIZUNAGATIK. ESKUMENA DUEN ADMINISTRAZIO-ORGANOAK EZESTEKO EBAZPENA EMAN DU. SOZIETATEA EZ DAGO ADOS EBAZPEN HORREKIN, ETA DAGOKION ERREKURTSOA JARRI DU ADMINISTRAZIO-BIDEAN. ZEIN ERREKURTSO DA HORI?**
- 151a) Gorako errekurtsoa.  
151b) Berraztertzeke errekurtsoa.  
151c) Administrazioarekiko diru-erreklamazioa.  
151d) Auzibide zibilera jo aurreko erreklamazioa.
- 152 ADMINISTRAZIOAK EBAZPEN BAT JAKINARAZI BEHAR DIO X JAUNARI; BAINA, LEHENENGO AHALEGINEAN, X JAUNAREN BIZILEKUAN EZ DAGO JAKINARAZPENA HAR DEZAKEEN INOR. EGOERA HORRETAN, ZER EGIN BEHAR DU ADMINISTRAZIOAK?**
- 152a) Dagokion aldizkari ofizialean iragarki bat jarriz egin jakinarazpena.  
152b) X jaunaren bizilekuan jakinarazpena emateko bigarren ahalegin bat egin.  
152c) X jaunaren bizilekuan jakinarazpena emateko behar beste ahalegin egin.  
152d) Jakinarazpenaren izapidea gauzatu jo.
- 153 ADMINISTRAZIOAK ZEHAPEN-ESPEDIENTEA IREKI DU. ESPEDIENTEA EBAZTEKO LEGEZ EZARRITAKO EPEA IGARO DA, BAINA ADMINISTRAZIOAK EZ DU ORAINDIK EBATZI. KASU HORRETAN, ZER ULERTU BEHAR DUGU?**
- 153a) Prozedura bukatu egin dela isiltasun positiboaren bidez.  
153b) Prozedura bukatu egin dela isiltasun negatiboaren bidez.  
153c) Prozedura bukatu egin dela iraungita.  
153d) Prozedura ez dela oraindik bukatu.
- 154 X ANDREAK KALTE-GALEREN ERREKLAMAZIO BAT AURKEZTU ZION ADMINISTRAZIO AUTONOMIKOARI. ESKUMENA DUEN ADMINISTRAZIO-ORGANOAK EZESTEKO EBAZPENA EMAN DU. X ANDREA EZ DAGO ADOS EBAZPEN HORREKIN, ETA AUZITEGIETARA JOTZEA PENTSATU DU. ZEIN JURISDIKZIOK DU ESKUMENA BERE ERREKURTSOA AZTERTZEKO?**
- 154a) Jurisdikzio zibila.  
154b) Zigor-arloko jurisdikzioa.  
154c) Administrazioarekiko auzi-jurisdikzioa.  
154d) Lan-arloko jurisdikzioa.

**155 X ANDREAK ESKAERA BAT AURKEZTU ZUEN. ADMINISTRAZIOAK EZ ZION EPEAREN BARRUAN ERANTZUN. X ANDREAK GORA JOTZEKO ERREKURTSOA JARRI NAHI DU. ZER EPE DU HORRETARAKO?**

- 155a) Hiru hilabete.
- 155b) Sei hilabete.
- 155c) Urte bat.
- 155d) Hilabete bat.

**156 MCL EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ADMINISTRAZIO-LAGUNTZAILEEN KIDEGOAN SARTZEKO OPOSIZIOETARA AURKEZTUKO DA. ZEIN DA KIDEGO HORRETAKO LANPOSTUEI EZARTZEN ZAIEN HIZKUNTZA-ESKAKIZUN OHIKOENA?**

- 156a) 1. hizkuntza-eskakizuna.
- 156b) 2. hizkuntza-eskakizuna.
- 156c) 3. hizkuntza-eskakizuna.
- 156d) 4. hizkuntza-eskakizuna.

**157 OPOSIZIOA GAINDITU ONDOREN, MCL HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA NAHITAEZKOA EZ DUEN LANPOSTU BATI ATXIKIA GERATU DA. ZER ESAN NAHI DU LANPOSTUAREN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA EZ DELA NAHITAEZKOA?**

- 157a) 5 urteko epea daukala hizkuntza-eskakizuna lortzeko.
- 157b) Postua betetzen duenak ez duela zertan lortu hizkuntza-eskakizuna.
- 157c) MCL-k gainditu egiten duela hizkuntza-eskakizuna nahitaez eskatzeko ezarritako adina.
- 157d) Lanpostuaren hizkuntza-eskakizunak ez duela derrigortasun-datarik finkatuta.

**158 MCL-K ERTZAINZAREN 1. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA DAUKA EGIAZTATUTA. ZER ESAN NAHI DU HORREK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREAN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA EGIAZTATZEARI DAGOKIONEZ?**

- 158a) Administrazio Orokorreko 1. hizkuntza-eskakizunaren egiaztapena bakarrik lortu ahal izango duela.
- 158b) Egiaztapena lortzeko ikastaro mugatu bat egin ahal izango duela.
- 158c) Administrazio Orokorreko 2. hizkuntza-eskakizuna baliozkotzeko eskatu ahal izango duela.
- 158d) IVAPen azterketa bat egin beharko duela egiaztatuta daukan hizkuntza-eskakizunaren balioari eusteko.

**159 DENA DELA, MCL-K BERE LANPOSTUARI DAGOKION HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA EGIAZTATZEKO BEHARRIK EZ IZATEA ESKA DEZAKE...**

- 159a) Baldin eta plangintzaldiaren hasieran 45 urtetik gora bazituen.
- 159b) Baldin eta Oinarrizko Batxilerra duela egiaztatzen badu.
